



IKT HELDUTASUN EREDUA

BALIABIDEAREN MURRIZKETAREN INGURUAN

HEZIBERRI 2020ko ardatzetako bat hezkuntza sistemaren digitalizazioa lortzea dala adierazi zaigu hainbatetan. Honen alde zenbait ekimen ezarri dira abian duela gutxi. Sare Hezkuntza proiektua edo dispositiboaren eresketa laguntzeko deialdiak horren erakusgarri dira.

Metodologia berritzaileen ezarpena, ikasmaterial digitalen ekoizpena, ikastetxeen egokitzapen teknologikoa, eta Berritzu Planaren eguneratzea, oraindik erronkak eta ez errealitatea diren arren LH eta DBH_BATX ikastetxe askok digitalizazioaren jauzi kualitatiboa emateko adorea izan dute, horrela erantzukizun handia bere gain hartuz.

Bestalde, eskola publikoaren digitalizazioaren bidea nondik nora joan beharko duen hausnartzeko eta kezkek partekatzeko, Eskola Digitala ekimena ezarri genuen abian.

Ziurgabetasunez beteriko egungo egoeraren aurrean, beste ikastetxe publiko askok ez dituzte baldintza minimoak ikusi jauzi hori ematera animatzeko. Ez ausardia faltagatik, baizik eta eman beharreko pausuak ahalik eta eraginkorren izateko nahiarekin. Hezkuntza Sailak, egoera konplexu honi irteera aurkitzeko, planteatu duen neurri bakarra izan da, eraginkortasun ekonomikoaren irizpidea aplikatzea. IKT heldutasun ereduan zeuden hainbat ikastetxeri hartarako definituta zegoen 0'33ko baliabidea egun batetik bestera eta inolako argibiderik gabe bertan behera utzi egin da.

Baliabideen erabilera zuzena bermatzearen helburuarekin ados egon arren, uste dugu gauden digitalizaziora jauzi egiteko prozesu hau arrakastatsua bihurtzeko, ez dala nahikoa soilik baliabideen gaia kontutan hartzea.

Egoera honen aurrean kontsiderazio asko sortzen zaizkugun arren zenbait erantzun beharreko zalantza plantetatzen ditugu:

1. IKT heldutasun ereduko programa amaieraren erabakia zein nolako diagnostikoan dago oinarrituta?
2. Nola informatu da IKT heldutasun eredutik Sare Hezkuntza gelan programarako trantsizioari buruz?
3. Sare Hezkuntzarako jauzia eman ez duten zentroen digitalizazioaren bidean laguntzeko nolako neurriak aurrakusten dira 2016-17 eta ondorengo ikasturteetarako?

Amaitzeko, adierazi nahi dizuegu elkarrizketarako daukagun jarrera irekia, denon artean gaien eragiten duten aldagai guztietaz hitz egiteko eta irteera adostuak aurkitzeko.

BIHE, SAREAN elkartek

2016-06-01

